BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1677

EBAZPENA, 2015eko martxoaren 10ekoa, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena. Honen bidez argitaratzen da Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko uztailaren 15eko Aginduan aurreikusten diren laguntzen entitate onuradunen zerrenda (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza duten sindikatuetarako diru-laguntzak arautzen dira).

Diru-laguntzen publizitate-printzipioari jarraituz eta aipatutako aginduaren 8.4 artikulua betetzeko, honako hau

EBAZTEN DUT:

2014ko uztailaren 15eko Aginduaren babespean, laguntzak eskatu ondoren onartu diren diru-laguntzen entitate onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, bertan adierazita entitate onuradunak eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoa adierazita, ebazpen honen eranskinean azaltzen den moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 10a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
JOSÉ JAVIER LOSANTOS OMAR.

ERANSKINA

Sindikatua	Dirulaguntzak (eurotan)
ELA	457.737
CC.OO.	226.609
LAB	207.002
UGT	141.218
LSB-USO	21.745
ESK	15.881
STEE-EILAS	10.872
SATSE	5.925
CSI-CSIF	3.848
FASGA	2.321
ERNE	2.016
USAE	1.527
SME	1.466
CC	550
Hitza	550
Bazkuna	489
CIM	244
Total	1.100.000